

FUNTSEZKO JARDUERAK

Kanpalekua erabiltzaileei (Aniztasun funtzionala dutenak) egokituta egon behar da, baita egingo diren dinamikak eta jolas-tokia (atrakzioa). Hau da, proiektu honetan garrantzitsuena erabiltzaileei oporretan ondo pasatzeko egingo dituzten jarduerak egokitzea euren beharren arabera.

Hala ere, enpresaren webgunea mantentzea ere garrantzitsua izango da bertatik helduko garelako bezeroengana, gure kanpalekua eta eskaintzen duena azalduz eta sustatuz.

Azkenik, gizarteratzaileak mantentzea eta erakartzea ere izango lirateke garrantzitsua. Zeren eta euren izango dira erabiltzaileen monitoreak eta erreferenteak arazo edo bestelakoen aurrean lagunduko dietenak.

